

**2009ko OTSAILAREN 19ko UDALBATZARRA**  
**PLENO DE 19 DE FEBRERO DE 2009**

**BERTARATUAK / ASISTEN:**

**ALKATEA / ALCALDE: JOSU IRATZOKI AGIRRE**

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:**

**AMAYA TELLECHEA INDA, AINTZANE ARTOLA URRUTIA, HELENA SANTES-  
 TEBAN GUELBENZU, ALFREDO GOYENECHÉ INÉS, SANTIAGO ALZUGUREN  
 MATXIKOTE (2. puntuan), ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, M<sup>a</sup> SOL MARGARITA  
 TABERNA IRAZOQUI, JON ABRIL OLAETXEA.**

**IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.**

**KONTUHARTZAILEA/ INTERVENTOR: IÑIGO URDANGARIN ZURUTUZA (4. puntua  
 bukatu arte/ hasta la finalización del 4º punto).**

**BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:**

**RAMON ELGORRIAGA ERRANDONEA (aitatasuna/paternidad), RAFAEL ECHEVE-  
 RRIA PERURENA (lana/trabajo).**

**Tokia: BERAko Herriko Etxea.**

**Eguna: 2009-02-19**

**Ordua: 20:30**

**Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia**

Lugar: Casa Consistorial de BERA.

Día: 19-02-2009

Hora: 20:30

Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.

**TRATATZEKO GAIK:**

**ASUNTOS A TRATAR:**

**1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-**

**1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTE-  
 RIOR.-**

**2009ko urtarrilaren 15ean egindako bilera-  
 ren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DA.**

Vista el acta de la sesión celebrada el día 15 de  
 enero de 2009, por unanimidad, SE APRUE-  
 BA.

*Datorren puntuan kontuhartzailea azalpenak  
 ematen ari denean Santiago Alzuguren  
 zinegotzia bertaratu da.*

*Mientras se realiza la exposición del interven-  
 tor en el punto siguiente se incorpora el con-  
 cejal Santiago Alzuguren.*

**2.- 2009.eko AURREKONTUA ONESTEA.**

**2.- APROBACIÓN PRESUPUESTO 2009.**

*Kontuhartzaileak aurrekontuaren azalpena eman ondoren, aho batez, honako erabakia hartu dute:*

**Ikusirik, 2009.eko ekitaldirako Aurrekontua Orokorraren proiektua, non Udal Aurrekontua eta "Isidoro Fagoaga" Musika Eskolarena sartzen baitira.**

**Ikusirik, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 201.4 artikuluari jarraikiz Kontuhartzaitzak eta Idazkari-tzak egindako txostenak.**

**ERABAKI DA:**

- 1) **2009.eko Aurrekontua, arestian aipatutakoa, hasiera batez onestea.**
- 2) **Aipatu Aurrekontua, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarki Taulan aurrez iragarrita, hamabost laneguneko epean jendaurrean egotea herritarrek eta interesatuek azter dezaten eta nahi dituzten erreklamazioak jar ditzaten.**
- 3) **Aurreko puntuan aipatzen den jendaurreko epea iragan ondoren, erreklamazioz ez balego, Aurrekontua behinbetikoz onetsizat hartuko dela ohartaraztea.**

**3.- 2009ko MUSIKA ESKOLA ETA UDAL LANGILEEN PLANTILLA ORGANIKOA.-**

*Idazkariak udal plantillaren espedienteari buruzko azalpenak egin ondoren, aho batez, honako erabakia hartu dute:*

**Ikusirik, 2009. urterako Udal eta Musika Eskolako Langileen Plantilla Organiko espediente.**

*Tras la exposición del presupuesto realizada por el interventor, por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:*

Visto el proyecto del Presupuesto General para el ejercicio de 2009, en el que se incluyen el Presupuesto del Ayuntamiento y el de la Escuela de Música "Isidoro Fagoaga".

Vistos informes de Intervención y Secretaría emitidos en cumplimiento de lo establecido en el artículo 201.4 de la Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales de Navarra.

**SE ACUERDA:**

- 1) Aprobar inicialmente el Presupuesto para el ejercicio de 2009, antes indicado.
- 2) Exponer dicho Presupuesto en Secretaría por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios, a fin de que los vecinos/as o interesados/as puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.
- 3) Indicar que, si no se formularen reclamaciones, el presupuesto se entenderá aprobado definitivamente, una vez transcurrido el período de exposición pública señalado en el punto anterior.

**3.- PLANTILLA ORGÁNICA PERSONAL MUNICIPAL Y ESCUELA DE MÚSICA AÑO 2009.-**

*Tras las explicaciones de la secretaria sobre el expediente de la plantilla municipal, por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:*

Visto expediente de la Plantilla Orgánica del Personal del Ayuntamiento y de la Escuela de Música para el año 2009.

**Izanik, 18/1986ko abenduaren 15-eko Foru Legearen 15.2 artikulua zera ohartarazten duela:**

**"Administrazio bakoitzak, beraiei dagozkien eskumenen esparruan, zehaztuko du zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskara jakitea, eta gainerakoentzat, kontutan hartzeko merezimendutzat hartuko da besteren artean".**

**Izanik, 29/2003 Foru Dekretuaren 18.1 artikulua honako hau xedatzen duela:**

**"Nafarroako Administrazio Publikoek, ebazpen arrazoituaren bidez, beren plantilla organikoetan adieraziko dute euskaraz jakitea zer lanpostu eskuratzeko izanen den nahitaezkoa, zereginen, Foru Dekretu honetako zehaztapenen eta eskariaren arabera; lanpostu horien zereginei dagokien jakite maila adierazi beharko da."**

**Lehen aipatutako artikuluei jarraikiz.**

**ERABAKI DA:**

**1) 2009. urterako Eskola Musika eta Udal Langileen Plantilla Organikoa hasiera batez onestea.**

**2) Organismo autonomo eta Udaleko lanpostu guztiak eskuratzeko, nahiz funtzionarioenak zein kontratatuenak, euskara jakitea nahitaezkoa izanen dela xedatzea espedientean eta erabaki honetan adierazten den jakite mailaren arabera.**

**3) Aipatu plantilla, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarri Taulan aurrez iragarrita, hamabost laneguneko epean jendaurrean egotea herritarrek eta interesatuek azter dezaten eta nahi dituzten erreklamazioak jar ditzaten.**

Siendo que el artículo 15.2 de la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vasconce indica que "en el ámbito de sus respectivas competencias, cada Administración especificará las plazas para las que sea preceptivo el conocimiento del vasconce y, para las demás, se considerará como mérito cualificado, entre otros".

Siendo que el artículo 18.1 del Decreto Foral 29/2003 establece que "Las Administraciones Públicas de Navarra, mediante resolución motivada, indicarán en sus respectivas plantillas orgánicas los puestos de trabajo para los que el conocimiento del vasconce sea preceptivo para poder acceder a los mismos en función del contenido competencial, de las determinaciones de este Decreto Foral y de la demanda, expresando el grado de dominio que corresponda al contenido de dichos puestos de trabajo."

De acuerdo con lo establecido en los artículos citados anteriormente.

**SE ACUERDA:**

1) Aprobar inicialmente la Plantilla Orgánica del Personal del Ayuntamiento y Escuela de Música para el año 2009.

2) Establecer que para acceder a todos los puestos de trabajo del Ayuntamiento y organismos autónomos, tanto de personal funcionario como de contratado, el conocimiento del euskera será preceptivo según se especifica en el expediente y en este acuerdo.

3) Exponer dicha plantilla en Secretaría por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios, a fin de que los vecinos/as o interesados/as puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.

4) Aurreko puntuan aipatzen den jendaurreko epea iragan ondoren, erreklamazioz ez balego, plantilla behin-betikoz onetsizat hartuko dela ohartaraztea.

**4.- 2009RAKO LUZATU DEN AURREKONTUAN KREDITUAK HABILITAZEKO ESPEDIENTEA ONESTEA (09/1 ESPEDIENTEA)**

*Kontuhartzaileak gai honi buruzko azalpenak egin ondorean, aho batez, honako erabakia hartu dute:*

**Ikusirik, Kontu-hartzaileak 2009ko otsailaren 13an egindako txostena, non 2009rako luzatu den aurrekontuan Toki Inbertsiorako Fondo Estatalak emandako diru-laguntzaren bidez finantzatu behar diren obrak gauzatzeko, ondoan aipatuko direnak, ez dago kontu-sailik, beraz, kredituak habilitatzeko espedientea onetsi behar dela adierazi duen.**

**Obrak:**

- Kultur Etxeko teilatua erreberitzea.
- Matzadako Parkea.
- Herriko Etxean igogailua jartzea.
- Udal Kiroldgia moldatu eta egokitzea.
- Toki Ona Haur Eskola handitzea.
- Berako erabilera aunitzeko eraikia moldatzea.

**Kontuan hartuz, obra horien finantzaketa Toki Inbertsiorako Fondo Estatalaren kargura baimendu dituela Lurralde-Lankidetzako Estatu-Idazkaritzak espediente honetan diru-sarrerak sortutako kredituak izapidetu behar dira.**

**Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 218. artikuluei eta indarrean dauden aurrekontuaren 9. eta 13. exekuzio-oinarriari jarraikiz.**

4) Indicar que, si no se formularen reclamaciones, la plantilla se entenderá aprobada definitivamente, una vez transcurrido el periodo de exposición pública señalado en el punto anterior.

**4.- APROBACIÓN DE HABILITACIÓN DE CRÉDITOS EN EL PRESUPUESTO PRORROGADO PARA 2009. (EXPEDIENTE 1/09).**

*Después de las explicaciones del interventor sobre este asunto, por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:*

Visto informe emitido por el Interventor de fecha 13 de febrero de 2009 en el que manifiesta que en el presupuesto prorrogado para 2009 para la ejecución de las obras a financiar a través de las ayudas concedidas del Fondo Estatal de Inversión Local, las que luego se indican, no cuentan con partida presupuestaria por lo que es preciso la aprobación de un expediente de modificación de créditos.

**Obras:**

- Rehabilitación de cubierta de la Casa de Cultura.
- Parque de Matzada.
- Instalación ascensor en Casa Consistorial.
- Adecuación y Reparación del Polideportivo Municipal.
- Ampliación Escuela Infantil Toki Ona.
- Reforma edificio para usos múltiples en Bera

Teniendo en cuenta que la financiación de estas obras ha sido autorizada a cargo del Fondo Estatal de Inversión Local por la Secretaría de Estado de Cooperación Territorial, en este expediente debe tramitarse un crédito generado por ingresos.

De acuerdo con lo establecido en los artículos 218 de la Ley Foral de Haciendas Locales y en las bases de ejecución 9ª y 13ª del presupuesto en vigor.

**ERABAKI DA:**

- 1) Lehen aipatu diren obretarako finantzazeko sortutako kredituak onestea.

*Kontuhartzaileak alde egiten du.*

**5.- NA-121-A ERREPIDEKO OBRETAKO “ARDANBIDE” OBRA-HONDAKINDEGIA ZABALTZEKO 16. POLIGONOKO 23A. LUR-ZATIA ERABILTZEKO NAFARROAKO GOBERNUAREN KOMUNIKABIDE, GARRAIO ETA OBRA PUBLIKOEN DEPARTAMENDUARI BAIMENTZEA**

*Gaia azaldu ondoren, aho batez, honako erabakia hartu dute:*

**NA-121-A errepidean egin behar diren obrak direla eta Nafarroako Gobernuaren Komunikabide, Garraio eta Obra Publikoen Departamentuak lurra botatzeko aldi bateko okupazioak egiteko, beste batzuen artean, desjabetzeko espediente tramitatu zuen.**

**Geroztik, beste herri-lurra, 16. poligonoko 23B. lur-zatikoa, hain zuzen, Sunbila-Etxalar eta Etxalar-Bera bidegunetako obretan atera behar den lurra botatzeko baimena eman zion Udalak departamentu horri.**

**Orain, “Ardanbide” obra-hondakindegia-  
ren proiektuaren II. gehigarria aurkeztu dute zeinaren arabera 16. poligonoko 23A lur-zatia behar dute aipatu hondakindegia handitzeko.**

**Ingurugiroaren eraginari buruz Ecolan enpresarekin kontsultatu ondoren eta**

**SE ACUERDA:**

- 1) Aprobar los créditos generados por la financiación de las obras antes reseñadas.

*El interventor abandona la sesión.*

**5.- AUTORIZACIÓN DE USO DE LA PARCELA COMUNAL 23A DEL POLÍGONO 16 PARA AMPLIACIÓN DEL VERTEDERO “ARDANBIDE” EN LAS OBRAS DE LA CARRETERA NA-121-A AL DEPARTAMENTO DE OBRAS PÚBLICAS, TRANSPORTES Y COMUNICACIONES DEL GOBIERNO DE NAVARRA.**

*Tras la explicación del asunto, por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:*

Con motivo de las obras a realizar en la carretera NA-121-A el Departamento de Obras Públicas, Transportes y Comunicaciones del Gobierno de Navarra tramitó un expediente de expropiación para, entre otros, la ocupación temporal de terrenos para vertido de tierras.

Posteriormente se autorizó al citado Departamento el uso de otra parcela comunal, en concreto la 23B del polígono 16, para el vertido de las tierras resultantes de la obra de los tramos Sunbila-Etxalar y Etxalar-Bera.

Actualmente han presentado un anexo II al proyecto de vertedero de “Ardanbide” según el cual se necesita la parcela 23A del polígono 16 para la ampliación de dicho vertedero.

Tras consulta con la empresa Ecolan sobre la posible afección medioambiental y habida

**eraginik ez dela izanen kontuan harturik.**

cuenta que no se ha apreciado afección alguna.

**ERABAKI DA:**

**SE ACUERDA:**

**1) “Ardanbide” obra-hondakindegia handitzeko herri lurra den 16. poligonoko 23A. lur-zatia erabiltzeko baimena Nafarroako Gobernuaren Komunikazio, Garraio eta Obra Publikoen Departamentuari ematea, honako oharren arabera:**

1) Autorizar al Departamento de Obras Públicas, Transportes y Comunicaciones del Gobierno de Navarra el uso de la parcela comunal 23A del polígono 16 para ampliación del vertedero de “Ardanbide”, de acuerdo a las siguientes condiciones:

**1.1.) Baimen hau eman zaio, bere garaian aipatu den herri-lurraren aldi bateko okupazio eta beste kalteengatik Udalari dagoen kion indemnizazioa emateari utzi gabe.**

1.1) Esta autorización se concede sin perjuicio de la indemnización que corresponda al Ayuntamiento por la ocupación temporal de la citada parcela y por los daños que se ocasionen.

**1.2) Oraingo onuradunak behar diren baldintzetan erabili ahal izateko 16. poligonoko 22.C) lur-zatiaren sarbidea mantendu beharko da.**

1.2) Deberá mantenerse el acceso a la parcela 22.C) del polígono 16 para que el actual beneficiario pueda seguir utilizándola en las debidas condiciones

**2) Ebazpen hau Nafarroako Gobernuaren Komunikazio, Garraio eta Obra Publikoen Departamentuari jakinaraztea.**

2) Notificar esta Resolución al Departamento de Obras Públicas, Transportes y Comunicaciones del Gobierno de Navarra.

**6.- LUR EZ URBANIZAGARRIAN UDAL PLAN OROKORRAREN ALDAKETA EGITURATZAILEA BEHIN BEHINEKO ONESTEA.**

**6.- APROBACIÓN PROVISIONAL DE MODIFICACIÓN ESTRUCTURANTE DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL EN SUELO NO URBANIZABLE.**

*Idazkariak zera azaldu du:*

*La secretaria explica lo siguiente:*

*Goizean, Nasursako arkitektoarekin hitz eginen lur ez urbanizagarriko beste espedienteari buruz Erabilera Publikoko Mendietako gunea onetsi behar den dokumentoan ongi ote dagoen susmoa agertu da.*

*Por la mañana, comentando otro expediente de suelo no urbanizable con el arquitecto de Nasursa han aparecido dudas de si la zona de Montes de Utilidad Pública se encuentra bien definida en el documento a aprobar.*

*Horren ondotik, Ingurugiroko langilearekin eta Udal Plana egin zuten arkitektoekin hitz egin ondoren, hark espediente honetan bere txostenean dagoen planoen arabera izan behar dela erran eta dokumentu onetsi baino lehen hobe zela zuzentzea adierazi du.*

*Tras ello se ha puesto en contacto con los arquitectos que redactaron el Plan Municipal y con el personal de Medio Ambiente y éste le ha comentado que debe definirse según está expresado en los planos remitidos adjuntos a su informe que constan en este expediente y que sería conveniente corregirlo antes de aprobar el documento.*

**Hori dela eta, aho batez, honako erabakia hartu dute:**

*Por lo anterior, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, Lur ez urbanizagarrian Udal Plan Orokorraren aldaketa egituratzailea egiteko espedientea.**

**Proiektuak:**

**- Hasiara batez onetsia: .Jabier Lekuona Errandonea arkitektoak eta Felipe Saragueta Irazoki abokatuak egina, 2008ko urtarrilaren 31koa**

**- Behin behinekoz onespenerako: Xabier Lopez de Uralde arkitektoak egina, 2009ko otsailaren 3koa**

**Kontuan hartuz, onartu behar den dokumentazioan Erabilera Publikoko Mendietako gunea ongi ote dagoen argitzeko.**

**ERABAKI DA:**

**1) Espedientea erabaki gabe uztea.**

**2) Erabilera Publikoko Mendietako gunea zein izan behar den argitu eta, behar izan ezker, zuzentzea Lua arkitektoak enpresari eskatzea.**

**7.- ZALAINGO CI2-KO XEHETASUN AZTERLANA EZ ONARTZEKO ERABAKIAREN AURKA JARRITAKO BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA: S. TOLOSA.**

*Alkatea aurreko erabakian aipatzen ziren afekzioak orain aurkeztutako dokumentazioarekin txikitzen direla erran du, beraz, proposamenean agertzen den moduan Xehetasun Azterlana onartzen ahal dela.*

*Jon Abrilek, bere irudikoz, gauza batzuk, bidearen neurriak, berde gunea ..... ez daudela oso argi gelditzen aipatu du.*

*Honen ondotik horri buruz eztabaida sortu*

Visto proyecto de modificación de determinaciones de ordenación estructurante en el Suelo no urbanizable del Plan General Municipal.

Proyectos:

- Aprobación inicial: Redactado por el arquitecto Jabier Lekuona Errandonea y el abogado Felipe Saragueta Irazoki de fecha 31 de enero de 2008.

- Para aprobación provisional: Redactado por el arquitecto Xabier López de Uralde de fecha 3 de febrero de 2009.

Teniendo en cuenta que debe aclararse si el espacio de los Montes de Utilidad Pública se encuentra bien definido en la documentación a aprobar.

SE ACUERDA:

1) Dejar pendiente el expediente.

2) Solicitar a la empresa Lua Arkitektoak que aclare y, si procede, corrija el espacio de los Montes de Utilidad Pública a definir.

**7.- RECURSO DE REPOSICIÓN CONTRA EL ACUERDO DE NO APROBACIÓN DEL ESTUDIO DE DETALLE DE LA CI2 EN ZALAIN: S. TOLOSA.**

*El Alcalde manifiesta que las afecciones que se señalaban en el acuerdo anterior ahora han disminuido por lo que, tal y como aparece en la propuesta puede aprobarse el Estudio de Detalle.*

*Jon Abril señala que, en su opinión, hay varias cosas, la medida del camino, la zona verde ....., que no quedan muy claras.*

*Tras lo anterior, surge un largo debate al*

*da eta 20:45 orduetan bilera gelditu da aretoan dauden Zalaingo bizilagunekin gai honi buruz hitz egiteko.*

*Bilera berriro 22:25 orduetan hasi da eta,, aho batez, erabaki hau hartu dute:*

**ERABAKI DA:**

1) Espedientea erabaki gabe uztea hurrengo ostegunera arte dauden zalantzak argitzeko.

**8.- ZALAINGO CI2-KO XEHETASUN AZTERLANA EZ ONARTZEKO ERABAKIAREN AURKA JARRITAKO BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA: ZALAINGO BIZILAGUNAK.**

*Aho batez, honako erabakia hartu dute.*

2009ko urtarrilaren 29an Zalaingo CI2-ko Xehetasun Azterlana ez onartzeko erabakiaren aurka Berraztertzeko Errekurtsoa jarri zuten Zalaingo bizilagun batzuk.

Geroztik, 2009ko otsailaren 17an bizilagun horiek beste idatzia aurkeztu dute non jarritako Berraztertzeko Errekurtsoan atzera egin dute,

**Hori dela eta, ERABAKI DA:**

1) Jarritako Berraztertzeko Errekurtsoan atzera egiteaz jakinen gainean gelditzea.

2) Espedientea artxibatzea.

**9.- LANKIDETZA-HITZARMENA: BERAKO BANDA-UDALA**

*Honi buruz, aho batez, honako erabakia hartu dute:*

**Ikusirik, Berako Banda eta Udalaren artean sinatzeko Lankidetzak**

*respecto y a las 20:45 horas se suspende la sesión para hablar sobre el tema con los vecinos de Zalain presentes en la sala.*

*Reanudada la sesión a las 22:25 horas, por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:*

**SE ACUERDA:**

1) Dejar pendiente el expediente hasta el próximo jueves para aclarar las dudas surgidas.

**8.- RECURSO DE REPOSICIÓN CONTRA EL ACUERDO DE NO APROBACIÓN DEL ESTUDIO DE DETALLE DE LA CI2 EN ZALAIN: VECINOS DE ZALAIN.**

*Por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

Con fecha 29 de enero de 2009 varios vecinos de Zalain presentaron Recurso de Reposición contra el acuerdo de no aprobación del Estudio de Detalle de la CI2 en Zalain.

Posteriormente, con fecha 17 de febrero de 2009 han presentado un escrito en el que desisten del Recurso de Reposición interpuesto.

Por ello, SE ACUERDA:

1) Darse por enterados del desistimiento en el Recurso de Reposición interpuesto.

2) Archivar el expediente.

**9.- CONVENIO DE COLABORACIÓN: BANDA DE BERA-AYUNTAMIENTO**

*Al respecto, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

Visto texto del Convenio de Colaboración entre el Ayuntamiento y la Banda de Bera.

**Hitzarmenaren testua****ERABAKI DA:**

**1) Aipatutako komenioa onestea eta Berako Bandarekin sinatzea.**

**2) Erabaki hau interesatuari jakinaraztea.**

**10.- AMAIURKO HERRIAREN ALDARRIKAPENA 1512KO KONKISTAREN 500. URTEMUGAREN HARIRA.**

*Aho batez, ondoko mozioa onartu dute:*

**PUNTUAK:**

**1) BERAko Udalak, duela 500 urte Nafarroaren, hau da, gure Estatuaren independentzia defendatu zutenei agur eta ohore egin nahi die. Hortaz, duela bortz mende Tuteran, Lizarran, Burgin, Donibane Garazin, Garruzen, Noainen eta bertze anitz lekutan gure libertatearen sugarra babes-teko borrokatu zirenak omendu nahi ditu. Amaiurko gazteluan Nafarroaren independentziaren alde bere bizitza eman zutenen kemena gogoan, Amaiurko herriaren deialdiari jarraikiz, euskaldun guztion Nafarroa bizirik dela aldarrikatzen dugu.**

**2) Udal honek bat egiten du 1512.eko konkistaren bosgarren urtemuga gogorarazteko abiatuko diren ekimenekin eta, bere ahalen arabera, laguntza eskainiko die.**

**3) Amaiurko herriak egiten ahal duen deiekin bat egiten dugu eta gure ordezkaritza igorriko dugu bertara, Amaiurko herriaren aldarrikapena gurea egin dugula jakinaraz dezan.**

**SE ACUERDA:**

1) Aprobar el citado convenio y proceder a su firma con la Banda de Bera.

2) Notificar este acuerdo a la interesada.

**10.- LLAMAMIENTO DEL PUEBLO DE AMAIUR EN TORNO AL 500 ANIVERSARIO DE LA CONQUISTA DE 1512.**

*Por unanimidad, se aprueba la siguiente moción:*

**PUNTOS:**

1) La Corporación municipal de Bera quiere recordar y honrar a quienes hace 500 años defendieron la independencia de nuestro Estado soberano. Así, deseamos homenajear a quienes lucharon por nuestra libertad en Tudela, Estella, Burgui, San Juan de Pie de Puerto, Garris, Noain y tantos otros lugares. Inspirados por el tesón de quienes dieron su vida por la independencia en la fortaleza de Amaiur, afirmamos que Navarra sigue viva.

2) Este municipio se adhiere a los actos que se celebrarán en torno al recuerdo de la conquista de 1512 y se compromete a apoyarlos en la medida de sus posibilidades.

3) Este municipio enviará una representación a convocatorias que haga el pueblo de Amaiur, con objeto de participar en ellas y hacer constar nuestra adhesión a sus llamamientos.

## 11.- TORTURAREN AURKAKO MOZIOA.

*Alkateak mozioaren testua irakurri ondoren aho batez, honako hau onartu dute:*

**Ikusirik, torturaren aurkako mozioaren testua.**

**Kontuan hartuz, azken parrafoan aipatzen duen otsailaren 13an dagoen kontzentrazioa joateko deialdia pasatu dela.**

### ERABAKI DA:

**1) Aipatu den Torturaren aurkako mozioa onestea kenduta kontzentrazioa joateko deialdiaren partea.**

## 12.- PALESTINAKO HERRIARI ELKARTASUNA ADIERAZTEKO MOZIOA.

*Alkateak mozioa irakurri du.*

*Horren ondotik, M<sup>a</sup> Sol Tabernak zera dio: Ados dago baina ez boikotaren asuntoarekin, gainera egoera ere aldatu da.*

*Helena Santestebanek:*

*Gaia arrazionalizatu egin behar da, distantziatik ikusi, palestinarrek ere ez dira aingerutxoak nahiz eta Israelen erantzuna desproporzionatua izan.*

*Arazoa da ez direla betetzen ONUren erabakiak.*

*Israelek Hamas-en eraikiak bonbardatu egiten du eta Hamas-ek populazio zibila babes giza erabiltzen du.*

*Laguntza humanitarioa ailegatzeko bideak irekitzea exijitu behar zaio Israeli.*

*Botazioa egina, aho batez onartu da mozioa boikotaren puntuak izan ezik, puntu hauetan 3 boto onartzekoaren alde (Ez atxikitako zinegotziak) eta 6 aurka (EA, EAJ-PNV eta Aralar) agertu dira..*

## 11.- MOCIÓN CONTRA LA TORTURA.

*Tras la lectura del texto de la moción realizada por el Alcalde, por unanimidad, aprueban lo siguiente:*

Visto el texto de la moción contra la tortura.

Teniendo en cuenta que la convocatoria para acudir a la concentración del 13 de febrero que cita en el último párrafo de la misma ya ha pasado.

### SE ACUERDA:

1) Aprobar la moción contra la tortura antes citada salvo la parte correspondiente a la convocatoria para la concentración.

## 12.- MOCIÓN SOBRE SOLIDARIDAD AL PUEBLO PALESTINO.

*El alcalde lee la moción.*

*Seguidamente, M<sup>a</sup> Sol Taberna manifiesta: Estoy de acuerdo pero no con la parte del boicot, además la situación ha cambiado ya.*

*Helena Santesteban:*

*Hay que racionalizar, ver el tema desde la distancia, los palestinos tampoco son unos angelitos aunque la respuesta de Israel sea desproporcionada.*

*El problema es que no se cumplen los acuerdos de la ONU.*

*Israel bombardea edificios de Hamas y Hamas utiliza a la población civil como escudos humanos.*

*Hay que exigir a Israel la apertura de vías para la ayuda humanitaria.*

*Sometido a votación, por unanimidad se aprueba la moción salvo los puntos referentes al boicot, en estos puntos resulta 3 votos a favor (concejales no adscritos) y 6 en contra (EA, AEJ-PNV y Aralar) de su aprobación.*

**Garai latz hauetan Palestinako herriari gure elkartasunik beroena adierazten diogu.**

**2008ko maiatzean Palestinarren hondamendia edo Nakba bezala ezaguna den estatu israeldarra sortu zela 60 urte bete ziren. Azken egun hauetan Israelgo Estatu Palestinako Gaza lurraldean egiten ari den sarraskia azken urteetako basakeriarik handiena izaten ari da.**

**Gazako bonbardaketa hauteskundeak demokratikoki irabazi zituen Hamas erakundearen zein Gazako herritarren aurkako zigor kolektiboa izaten ari da. Israelgo gobernu bere hauteskundeak irabazi nahian gerra sortzen ari da eta hori aurrekari arriskutsua izango daiteke.**

**Munduko estaturik armatuenetarikoa den Israel Palestinako herri zapalduaren aurka burutzen ari den giza krimen honen aurrean, Ameriketako Estatu Batuak, Europar Batasuna edo Nazio Batuak bezalako erakundeek beste aldera begiratu izana lotsagarria eta salatzekoa da. Instituzio hauen ordezkari diren Estatu inperialistak estatu terrorismoaren konplize zuzenak dira, euren interes geostrategikoen arabera mundua gerratoki bihurtzen ari dira, Afganistan, Irak, Libano eta orain berriro ere Palestina. Zein izango da hurrengoa?**

**60 urte hauetan Israelgo estatuak denetarik egin du Palestinako herriaren askatasun egarria isiltzeko: lurraldea zatikatu, lurrak, ura eta bestelako ondasunak lapurtu, lotsaren harresia inposatu... Milaka hildako, beste milaka erbesteratu eta 10.000 preso politiko baino gehiago eragin dira baina ala ere Palestinar herria bizirik jarraitzen du.**

En estos momentos tan duros, queremos mostrar nuestra solidaridad más profunda, al pueblo palestino.

En mayo de 2008 se cumplieron 60 años de la creación del estado de Israel en tierras pertenecientes al pueblo palestino. La masacre que el estado de Israel esta realizando en las tierras de Gaza en estos días está siendo la mayor atrocidad realizada en los últimos años.

El bombardeo sistemático de Gaza es un castigo colectivo para la organización que ganó democráticamente las elecciones, Hamas, y para el conjunto de la población de Gaza. El gobierno de Israel está impulsando una guerra con el objetivo de ganar sus elecciones, lo que supone un precedente muy peligroso de cara al futuro.

Ante los crímenes contra la humanidad que Israel, uno de los estados más armados del mundo, está cometiendo contra un pueblo oprimido como el palestino, que Estados Unidos, la Unión Europea, y organizaciones como la ONU, miren para otro lado es además de vergonzoso, denunciabile. Los estados imperialistas que representan a estas instituciones, son cómplices directos del terrorismo de estado, están convirtiendo al mundo en una zona de guerra en base a sus intereses geostratégicos, Irak, Afganistán, Líbano y ahora de nuevo Palestina; ¿Cual va a ser el siguiente?.

En estos 60 años, el estado de Israel ha hecho de todo para acallar las ansias de libertad del pueblo palestino: dividir las tierras, robarles tierra, agua y otros recursos que les pertenecen, imponer la humillación y la vergüenza... Miles de muertos y mutilados, y más de 10.000 presos políticos; Pero pese a todo el pueblo palestino sigue vivo.

Como en todos los conflictos del mundo, la solución al conflicto entre el estado de Israel y el pueblo palestino vendrá por la vía del

**Munduko gatazka guztietan bezala Palestina eta Israelen arteko gatazkaren konponbidea ere elkarrizketa eta negoziazioaren bidez etorriko da, Palestinarrek mila bider aldarrikatu izan duten moduan.**

**Guzti hori gertatzen ari den bitartean, Israeldar estatuari aurre egiteko tresna moduan, Palestinako 200 elkarte zibilek Israeli boikota bultzatu dute. Boikot hori gure herritik egitea ere tresna baliagarria izan daiteke.**

**Hau guziagatik, BERAko UDALAK honako hau adierazten du:**

- **Udal honek bere elkartasunik beroena adierazten dio Palestinako herriari.**
- **Israelgo Estatuarekin gure herriak izan ditzakeen harreman instituzionalak hautsiko ditugu.**
- **Udal honek Israelgo gobernuari gutuna bidaliko dio Gazako eraso arbuiatuz.**
- **Udalak herritarrei egingo den bilkuran parte hartzeko deia egiten die.**
- **Mozioa hau hedabideei helaraziko zaie baita, bereziki, herritar guztiei ere.**

### **13.- EUSKARA ERABILTZEN DUTEN KOMUNIKABIDEEI GOBERNUAK DIRULAGUNTZA JAISTEARI BURUZKO MOZIOA.**

*Helena Santestebanek mozioaren testua irakurri du eta, aho batez, onartu da:*

**Euskara erabiltzen duten komunikabideei Gobernuak dirulaguntza jaistearen aurrean**

**BERAko Udalak ADOSTEN DU:**

- 1. Euskara erabiltzen duten komunikabideei Nafarroako Gobernuak urtero**

diálogo y la negociación, como han reivindicado desde el pueblo palestino miles de veces.

Mientras todo esto ocurre, como herramienta para hacer frente al estado de Israel, más de 200 organizaciones civiles palestinas están impulsando el BOICOT a Israel. Impulsar el boicot, también desde nuestro pueblo, puede ser una valiosa aportación.

Por todo ello, el ayuntamiento de BERA acuerda lo siguiente:

- Este ayuntamiento muestra su más profunda solidaridad al pueblo palestino.
- Romper las posibles relaciones institucionales que nuestro pueblo tenga con el estado Israelí.
- Este ayuntamiento enviará al Gobierno de Israel una carta de rechazo a los ataques de Gaza.
- Este ayuntamiento hace un llamamiento a la ciudadanía a participar en la movilización que se realizará.
- Esta moción se hará llegar a los medios de comunicación y, en especial, a todas las y los vecinos del municipio.

### **13.- MOCIÓN SOBRE EL DESCENSO DE AYUDAS DEL GOBIERNO AL USO DEL EUSKERA EN MEDIOS DE INFORMACIÓN.**

*Helena Santesteban lee el texto de la moción que, por unanimidad, se aprueba:*

**Ante el descenso de ayudas del Gobierno al uso del euskera en medios de información**

**El Ayuntamiento de BERA, ACUERDA:**

- 1. Mostrar su oposición a la decisión tomada por el Gobierno de Navarra de rebajar**

**hizkuntzaren garapenerako ematen duen dirulaguntza, aurten %ko 96a jaistearen aurrean bere desadostasuna adieraztea.**

2. **Aldarrikatzea euskara Nafarroko hizkuntza propio eta jatorrizkoa dela, eta beraz, nafar guztiek aukera-berdintasunean erabiltzeko nola hizkuntza honetan informatzeko eta informatuak izateko eskubidea dutela.**
3. **Euskararen Legearen 27. artikulua gogoraraztea eta betetzeko exijitzea, dio: « administrazio publikoek komunikabide sozial publiko eta pribatuetan euskararen presentzia progresiboa bultzatu behar dute. Horretarako, Nafarroako Gobernuak laguntza ekonomikoa eta materiala emateko planak landuko ditu, gizarte komunikabideek euskeraren erabilpena progresiboki gero eta ohikoagoa egiteko».**
4. **Salatzea Nafarroako Gobernuak urte-urtera euskararen presentzia, erabilpena eta garapena bultzatzeko Aurrekontuetako kontusailetan egiten dituen murrizketak. Hala iaz euskara komunikabideetan bultzatzeko 310.000 euro onartu zituen, baina bakarrik 240.000 erabili zituen. Aldiz aurten, 9.567 euro bakarrik aurreikusi dira 2009rako, euskerazko tokiko komunikabide askoren bideragarritasun ekonomikoa kolokan jarritz.**
5. **Nafarroan euskeraz lan egiten duten eta erabaki hau dela eta bere etorkizuna kolokan ikusten duten komunikabide orori elkartasuna adieraztea, hauen artean, Xorroxin Irratiari, Xaloa Telebistari, Esan**

en un 96% las ayudas económicas para el desarrollo del euskera a los medios de comunicación que utilizan esta lengua.

2. Proclamar que el euskera es una lengua propia y originaria de Navarra, y por tanto, que todos los navarros y navarras tienen derecho a usarla y a ejercer su derecho a informar y ser informad@s en esta lengua.
3. Recordar y exigir el cumplimiento del artículo 27 de la actual Ley del Euskera, que dice: “Las administraciones públicas promoverán la progresiva presencia del euskera en los medios de comunicación social públicos y privados. A tal fin, el Gobierno de Navarra elaborará planes de apoyo económico y material para que los medios de comunicación empleen el euskera de forma habitual y progresiva”.
4. Denunciar los recortes que año tras año el Gobierno de Navarra realiza a las partidas destinadas a impulsar la presencia, el uso y el desarrollo del euskera. Así, el pasado año se aprobaron 310.000 euros para impulsar el euskera en los medios de comunicación, pero sólo se ejecutaron 240.000 euros. Y este año se han previsto sólo 9.567 euros para 2009, poniendo en riesgo la viabilidad económica de medios de comunicación locales en euskera.
5. Expresar nuestra solidaridad a los medios de comunicación que trabajan en euskera y como consecuencia de esta decisión ven en riesgo su futuro, entre ellos, Xaloa Telebista, Xorroxin Irratia, Esan Erran Irratia, la revista Nabarra, Euskalerrria Irratia (etab), y sobre todo, a Ttipi-Ttapa Telebista, que tras diez años de emisión se ve obligada a poner fin a

**Erran Irratiari, Nabarra aldizkariari, Euskalerrria Irratiari (etab), eta batez ere, Ttipi-Ttapa Telebistari, hamar urte eta gero itxi behar izango baitu.**

- 6. Nafar Gobernuari exijitzea dirulaguntza haunditu eta hemendik aurrera bermatzeko komunikabide hauek gizartean eta euskara bultzatzeko eta normalizatzeko betetzen duten funtzioa behar bezala egin dezaten.**
- 7. Akordio hau Nafarroako Gobernuari eta komunikabideei helaraztea.**

su actividad.

- 6. Exigir al Gobierno Foral que aumente las ayudas y las garantice en adelante, para que esos medios de comunicación cumplan como es debido su función social y de impulso y normalización del euskera.**
- 7. Trasladar este acuerdo al Gobierno de Navarra y a los medios de comunicación.**

#### **14.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-**

**Honako bando eta Alkatearen ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:**

- 1) Bandoak: B1/2009.**
- 2) Ebazpenak: 2009ko urtarrilaren 12ko 3. ebazpenetik 2009ko otsailaren 11ko 25.era arte.**

**Gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo absolutua betea izanik, honako gai hau tratatu da:**

#### **15.- 2009-2010ko IKASTURTEAN UDAL HAUR ESKOLAN SARTZEKO ARAUAK ONESTEIA.**

*M<sup>a</sup> Sol M. Tabernak gaia azaldu du:  
Dokumentazioa bidali dute eta aurten epea aurreratu dute.*

*Herrian bizitzea edo lan egiteagatik joan den urtean jarri zen balorazio bera e-mailez eskatu da eta onartu dute baina idatziz ere bidaltzeko eskatu dute.*

*Denak ados proposamen honekin, aho batez, ondoko erabakia onartu dute:*

#### **14.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-**

Se dan por enterados de los siguientes bandos y resoluciones de la Alcaldía:

- 1) Bandos: B1/2009.**
- 2) Resoluciones: De la resolución nº 3 de 12 de enero de 2009 a la nº 25 de 11 de febrero de 2009.**

Fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, se trata el siguiente asunto:

#### **15.- APROBACIÓN NORMAS ADMISIÓN EN LA ESCUELA INFANTIL CURSO 2009-2010.**

*M<sup>a</sup> Sol M. Taberna explica el asunto:  
Han remitido la documentación y este año han adelantado los plazos.*

*Se ha solicitado por e-mail la misma valoración del año pasado por residencia o trabajo en el municipio y lo han aceptado pero han pedido que se remita también por escrito.*

*Manifestando por unanimidad la conformidad con la propuesta efectuada, se adopta el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendari Nagusiak emandako otsailaren 2ko 21/2009 Ebazpena, Fondo Publikoen bidez finantzatutako Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan 2009-2010 ikasturtean haurrak onartzeko prozedura arautzen duena.**

**Ikusirik, Hezkuntza Kontseilariak emandako otsailaren 4ko 8/2009 Foru Agindua, aipatutako ikasturterako tarifak ezartzen dituena.**

**Ikusirik, Nafarroako Gobernutik bidalitako izena ematea eta ikasleak sartzeko aginduak Haur Eskolan 2009-2010ko ikasturtean matrikula egiteko.**

**Kontuan hartuz, joan den urtean ikasleak onartzeko Hautapen Batzordea izendatu zela eta ez dago aldaketarik.**

#### **ERABAKI DA:**

**1) Herrian bizitzea eta lan egiteagatik joan den urteko baremoan dagoen puntuazio bera izateko eskaera idatziz Hezkuntza Departamentuari bidaltzea.**

**2) Nafarroako Gobernu bidalitako izena ematea eta ikasleak sartzeko aginduak, Haur Eskolan 2009-2010 ikasturtean matrikula egitekoak, onestea.**

**3) Lehen aipatu den 8/2009 Foru Agindua-  
ren eranskinaren 6. oinarriari jarraikiz 50 euroko matrikulazio kuota ezartzea.**

**16.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.**

Vista Resolución 21/2009, de 2 de febrero, de la Directora General de Ordenación, Calidad e Innovación, por la que se regula el procedimiento de admisión de niños y niñas para el curso 2009/2010 en centros de primer ciclo de Educación infantil sostenidos con fondos públicos.

Vista Orden Foral 8/2009, de 4 febrero, del Consejero de Educación, por la que se establecen las tarifas de las familias para el citado curso.

Vistas instrucciones para inscripción y admisión de alumnos para la matriculación en el curso 2009-2010 en la Escuela Infantil remitidas por el Gobierno de Navarra.

Teniendo en cuenta que la Comisión de Selección de alumnos ya fue nombrada el año pasado y no hay variación en la misma.

#### **SE ACUERDA:**

1) Solicitar al Departamento de Educación informe favorable para mantener la misma puntuación del baremo del año pasado por residencia y trabajo en el municipio.

2) Aprobar las instrucciones sobre inscripción y admisión de alumnos/as para el curso 2009-2010 en el Centro de Educación Infantil remitido por el Gobierno de Navarra.

3) Establecer una cuota de matriculación de 50 euros de acuerdo con lo establecido en el base 6ª del anexo de la Orden Foral 8/2009, antes citada.

**16.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.**

**- Helena Santestebanek zera eskatu du:  
Zubizabaleko transformadorea aldatzea  
Iberdrolari eskatu behar zaio urpean geldit-  
zen baita.**

**- Jon Abrilek beste hau:  
Herriko Etxearen dirulaguntza eskatu  
baino lehen bilera bat eskatu behar zaio  
Toki Administrazio Departamentuari  
Beran bertan.**

**Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat  
eman du 22:50etan.**

**O.E. ALKATEA/ V.B. EL ALCALDE**

Josu Iratzoki Agirre

Helena Santesteban hace la siguiente solicitud:

1) Hay que pedir a Iberdrola que cambie el transformador de Zubizabal porque está en zona inundable.

Jon Abril:

Antes de presentar la solicitud de subvención para el Ayuntamiento hay que pedir al Departamento de Administración Local una reunión en Bera.

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 22:50 horas.

**IDAZKARIA/ LA SECRETARIA**

Pilar Chueca Intxusta